

Komisioen tarifak, baldintzak eta bezeroei jasanaraz daitezkeen gastuak

2019/03/10etik indarrean

23. EPIGRAFEA.- ORDAINKETA ZERBITZUAK: ZERBITZU MULTZOKATUAK NEGOZIOAK

Epigrafe honetan jasotzen diren tarifak gehienekoak dira, eta kontsumitzaile direnei aplikatzen zaizkie.

Enpresa edota lanbide jardueratik eratorritako edota lotutako mugimenduak dituzten kontuetako titularrei zuzendutako zerbitzua

ZERBITZU MULTZOKATUEN MODALITATEA NEGOZIOAK	KOMISIOA
NEGOZIOAK PACK-A	12,00 €/hilean
AUTONOMOAK PACK-A	36,00 €/hiruhileko
ETEAk PACK-A	36,00 €/hiruhileko
CX TARIFA LAUAK	50,00 €/hiruhileko

1. OHARRA Atal honetan aurreikusitako komisioaren hileko kobraketa baterazina da 10. Epigrafearen (Kontu korranteak, Aurrezkitakoak eta Eperako Gordailuak) kontuen mantentzeagatiko (1.2.1 eta 1.2.2 puntuak) eta administratzeagatiko (1.3 puntua) komisioekin.

2. OHARRA HOBARIAK:

1- Negozioak Pack-a modalitatean Bankuak honako hobari hauek aplikatuko ditu hileko komisioaren gainean, ezarritako baldintzak betetzen badira

Baldintzak	% Hobaria hileko komisioaren gainean
NOMINEN ORDAINKETA	%50
GIZARTE ASEGUAREN ORDAINKETA	%25
ORDAINAGIRIEN HELBIDERATZEA	%25
ST AKTIBOA	%50

Hobariak aplikatzeko baldintzak:

NOMINEN ORDAINKETA, komisioaren likidazioaren aurreko hilabetean gutxienez bi nomina ordaindu badira transferentzia bidez, modalitateari lotutako kontu pertsonalaren kargura.

GIZARTE ASEGUAREN ORDAINKETA, komisioaren likidazioaren aurreko hilabetean gizarte-aseguruak ordaindu badira transferentzia bidez, modalitateari lotutako kontu pertsonalaren kargura.

ORDAINAGIRIEN HELBIDERATZEA, komisioaren likidazioaren aurreko hilabetean gutxienez bi ordainagiri ordaindu badira helbideratze bidez uraren, argindarraren, gasaren edo telefonoaren kontsumoari buruzkoak, modalitateari lotutako kontu pertsonalaren kargura.

ST AKTIBOA, komisioaren likidazioaren aurreko hilabetean modalitateari lotutako kontu pertsonalaren bitartez Bankuarekin txartelen bidez fakturatzeko kontratatutako salmenta-terminaletik 1.000 eurotik gorako fakturazioa likidatu baldin bada.

Hobariak metagarriak dira, eta hileko komisioaren erabateko salbuespeneraino aplikatzen dira, hala dagokionean, baina ez da abonurik egingo hobari horien guztien gehiketa osoaren eta komisioaren artean egon daitezkeen aldeagatik.

2.- Negozioak Pack-a eta Eteak Pack-a modalitateetan Bankuak %100eko hobaria aplikatuko du hileko komisioaren gainean, ezarritako bi baldintzak betetzen badira:

Baldintzak	% Hobaria hiruhileko komisioaren gainean
GIZARTE ASEGURUAREN ORDAINKETA + ORDAINAGIRIEN HELBIDERATZEA	%100

Hobariak aplikatzeko baldintzak:

GIZARTE ASEGURUEN ORDAINKETA, komisioa likidatu aurreko hiru hilabeteetan gizarte-aseguruak ordaindu badira modalitateari lotutako kontu pertsonalaren kargura.

ORDAINAGIRIEN HELBIDERATZEA, komisioaren likidazioaren aurreko hiru hilabeteetan gutxienez bi ordainagiri ordaindu badira helbideratze bidez uraren, argindarraren, gasaren edo telefonoaren kontsumoari buruzkoak, modalitateari lotutako kontu pertsonalean.

3- CX Tarifa Lauak Pack-a modalitateetan Bankuak %100eko hobaria aplikatuko du hiruhileko komisioaren gainean, ezarritako bi baldintzak betetzen badira:

Baldintzak	% Hobaria hiruhileko komisioaren gainean
-HILEAN GUTXIENEZ 20 MUGIMENDU EGITEA -HILEAN GUTXIENEZ KARGU BAT EGITEA NOMINA, GIZARTE-ASEGURU EDO AUTONOMOEN ORDAINAGIRI GISA	%100

Hobaria aplikatzeko baldintzak: Enpresa edota lanbide eragiketarako kontuaren bitartez bideratzea, era eskusiboan, HILEAN gutxienez 20 MUGIMENDU sortuta, horietatik KARGU BAT NOMINA, GIZARTE-ASEGURUA EDO AUTONOMOEN ORDAINAGIRIA izanik.

Baldintzak betetzen direnaren egiaztapenak hiruhileko naturaletan egingo dira.

3. OHARRA Zerbitzu Multzokatuak Negozioak kontu pertsonalak elkartzeko aukera ematen du, eta guztiek ez dute administratze eta mantentze komisiorik. Kopurua aldatu egiten da modalitatearen arabera:

ZERBITZU MULTZOKATUEN MODALITATEA NEGOZIOAK	Lotu daitekeen kontu kopurua	Egon daitekeen titular kopurua
NEGOZIOAK PACK-A	1	1-99
AUTONOMOAK PACK-A	1	1-99
ETEAK PACK-A	1	1-99
CX TARIFA LAUAK	1	1-99

Modalitate guztietan Bankuak beretzat gordetzen du enpresa edota lanbide jardueretatik eratorritako edo elkartutako mugimendurik ez duten kontuak barne hartzeko eskubidea, eta baita Bankuak une bakoitzean merkaturatzen dituenen artetik modalitate bakoitzean zer kontu mota sartuko diren zehaztea ere.

4. OHARRA Modalitate bakoitzean sartutako beste zerbitzu batzuk:

ZERBITZU MULTZOKATUEN MODALITATEA NEGOZIOAK	(1) Komisiorik gabeko zerbitzu kopurua
NEGOZIOAK PACK-A	Urtean mugarik gabe
AUTONOMOAK PACK-A	Urtean mugarik gabe
ETEAK PACK-A	Hilean 10
CX TARIFA LAUAK	Urtean mugarik gabe (2)

(1) Komisiorik gabeko zerbitzuak: Plaza nazionalan eurotan egindako txeki bidezko diru-sarrerak, edota eurotan egindako banku-txekeak eta transferentziak, edota Europar Batasuneko estatukideen artean gehi Liechtenstein, Norvegia eta Islandiako estatuetan eurotan, koroa suediarrean edo errumaniar leuetan egindako transferentziak, lotutako kontuan egindakoak globalki zenbatuz. Salbuetsita daude FMAk (Funtsak Mugitzeko Aginduak), Balio Eguneko transferentziak, nazioarteko transferentziak (EEE izan ezik) eta berehalako transferentziak.

Modalitate bakoitzerako ezarritako muga gainditzen duten txeki bidezko diru-sarrerak, banku-txekeak edota transferentziak dagokion komisioa izango dute, gehienez ere 2,4 eurokoa.

5. OHARRA Nolanahi ere, ulertuko da Negozioak Pack-a eta Autonomoak Pack-a modalitateetan aurreikusten diren zerbitzuak pertsona fisikoek zuzenduak direla, eta Eteak Pack-a pertsona juridikoek. Bankuak beretzat gordetzen du Epigrafe honetan biltzen diren zerbitzuak Espainiako egoiliarrek ez diren pertsona fisiko eta juridikoek eskaintzeko eskubidea.